

Hobekuntza profesionala Espezializazio-gelak, ikastaroak eta praktikak

Xedea	Goi-mailako edo lanbide-prestakuntzako gazte tituludunen enplegarritasuna eta laneratzea hobetzea, ondoren Bizkaiko enpresetan sartzeko prestakuntza eta gaikuntza tekniko espezializatua eskainiko dien espezializazio-gela, master, ikastaro eta atzerriko praktiketan hobekuntza profesionalaren bidez.
Espezializazio gelak	<p>Unibertsitatearekin batera lankidetzan aritzea, unibertsitatearen beraren barruan espezializazio gelei eusteko, I+G+b-ko trebakuntza-jarduerak sustatzeko asmoz.</p> <p>Makineria – tresneria gela</p> <ul style="list-style-type: none">Makineria eta tresneriako diseinu, kontrol eta erabilerako prestakuntza, besteak beste 210 orduko dedikazioko mintegi bat eta sektoreko enprekin batera egindako praktikak Gelan EHU/UPVren beraren agiria emango da, makineria-tresneriako espezialista-graduari lotutakoa, hain zuzen ere <p>Espazio gela</p> <ul style="list-style-type: none">Zientzia eta Espazio Teknologia profesionalen prestakuntza, Zientzia, Espazio Teknologia eta Espazio Behaketa Master ofizialaren bidez eta espazioarekin zerikusia duten gai guztietako ikerketa zientifikoa, aplikatua eta teknologikoa sustatuz. <p>Aeronautikako gela</p> <ul style="list-style-type: none">Aireontzien propulsioko egituretan, aeronautikako diseinuaren eta euskarri informatikakoen arloetako ikerketa eta garapeneko proiektuetako teknologia aurreratuenetako profesionalen prestakuntza. Gelan EHU/UPVren beraren agiria emango da, aeronautikako teknologietako areagotze-graduari lotutakoa, hain zuzen ere
Hobekuntzako ikastaroak	<p>Masterrak</p> <p>Unibertsitateetako lankidetzaren bidez, besteak beste, arlo hauetakoak: enpresa-zuzendaritza eta enpresa-administrazioa, giza-baliabideak, marketina, nazioartekotzea.</p> <p>Leonardo Da Vinci eta Erasmus programak</p> <p>Europar Batasuneko Leonardo da Vinci Programa eta Erasmus Programa ikasketa iraunkorreko programetan parte hartzea. Programa horiek lanbide-heziketako eta unibertsitateko ikasketak amaitu dituzten gazteei zuzenduta daude, nazioartekotze-dimentsioak garatu eta eskura ditzaten eta,aldi berean, hizkuntzetako ezagutzak eta Europar Batasuneko herrialdeetako kulturetako prestakuntza lor ditzaten.</p>
Atzerriko praktikak	<p>Sektoreko klusterrekiko lankidetzako hitzarmenen bidez, nazioartekotzearen arloko enpresetako prestakuntza eta esperientzia bultzatzeko.</p> <p>Nazioartekotzearen arloko jatorriko prestakuntza eta ondoren Bizkaiko enpresen atzerriko lantegietan praktikak egitea.</p> <p>Lizentziatura lortu berri duten eta Bizkaiko enpresa eragileen lantegietan 9 hilabetez egoteko aukera duten pertsonak.</p>
Onuradunak	<p>Lanbide-hezkuntzako edo unibertsitateko azken ikasturteko ikasle gazteak.</p> <p>Unibertsitate-ikasketak amaitu dituzten gazteak.</p>